

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luis Ortuondo Bernaola Etxandi

*Dima, Bizkaia
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Dimako Biteriño auzoan jaio zen, Etxandi baserrian, eta elkarrizketa garaian ere bertan bizi zen. Baserrian aitaren familia bizi zen, errentadore, eta 70. hamarkadan erosi egin zuten. Bost neba-arrebatatik bigarrena da Luis. Umetan Dimako eskolan ibili zen, baina zenbaitetan etxean geratu behar izaten zuen baserriko lanetan laguntzen: egurrak ekarri, iturrean egin, ganaduak jagon, etab. Baserrian egin izan du lan beti, baita gurekin batu zenean ere. [Bere andreagaz](#) batera egin genion elkarrizketa eta eskolaren, baserriko bizimoduaren eta jaien gainean egin genuen berba eurekaz egon ginenean.

Zintak

DIM-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Data:** 2014-06-03
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

DIM-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Data:** 2014-06-03
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Dimako plazan ume txikien eskola

- **Erref:** DIM-008/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:03:31. **Bukatu:** 00:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Dimako plaza inguruan hiru etxe bakarrik zeuden garai batean. Moja batek dotrina eta "aeiou" irakasten zien ume txikiei plazan. Gero, sei urterekin herriko eskolara. Han neskak eta mutilak banatu egiten ziren.

2. Egun birik behin dotrina ikastera eta errezatza

- **Erref:** DIM-008/003
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:04:42. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizara joaten ziren egun birik behin dotrina ikastera eta beste egun birik behin errezatza. Parrokoak gogor hartzen zituen. Jaunartzea egiteko zertzuk ikasi behar izaten zituzten. Eskola erdaraz ikasten zuten, baina dotrina euskaraz. Abadearen laguntzaileak ibiltzen ziren dotrina irakasten. 14 urtera arte ibili ziren.

3. Asunen jaunartzeko jantzia

- **Erref:** DIM-008/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Jaunartzea sei urterekin egiten zen. Zer arropa eraman zuen azaltzen du Asunek. Ahizpa gazteagoak ere soineko harekin egin zuen jaunartzea eta gero berarentzat izan zen, domeketarako. Izekok egin zion jantzia. Garai hartan joskile asko zegoen. Gero, galtzerdi zuriak eta zapata beltzak. Mutilak fraka laburrekin.

4. Jaunartzera baraurik; bazkaria etxean

- **Erref:** DIM-008/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jaunartzea goizeko bederatzietan izaten zen eta baraurik joan behar izaten zuten. Gero, etxera joandakoan, txokolatea. Bazkaria etxean egiten zen: oiloa hil, harekin garbantzua egosi eta oilo hura saltsan edo tomatetan ipini. Postrean arroz-esnea. Gonbitetan ere antzeko menua.

5. Salome arrain-saltzailea

- **Erref:** DIM-008/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:09:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Arraina dezente jaten zuten, Salome izeneko arrainduna etortzen zelako arraina saltzen. Kaxa buru gainean hartuta ibiltzen zen. Zornotzako Astepe auzotik nola etortzen zen: Astepetik Lemoara eta handik Igorrera tranbian; Igorretik Dimara oinez.

6. Arrautzak saldu, olio eta azukrea erosteko

- **Erref:** DIM-008/007
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:09:59. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Arrautzak batzen etortzen ziren, Bilbora eroateko. Arrautzak saldu egin behar, kaletik olio eta azukrea ekartzeko. Goserik ez zuten izaten. Ogirik ez bazegoen, taloa edo morokila. Zer arrain klase jaten zuten. Bakailaoa dendan erosten zuten, oraingo aldean merke.

7. Mahats beltza eta zuria etxean

- **Erref:** DIM-008/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Sagarrez gain, madariak ere izaten zituzten, baina gutxiago. Gabon-madaria eta makatza. Mahatsa ere asko zuten, etxe buelta guztian. Zuria eta beltza. Luisek etxean txakolina egiten zutela dio. Irail inguruan batzen da mahatsa. Baba batzera joaten zirenean, mahatsa eramaten zuten altzoan, eta nekatzen zirenean, hura jan.</p>

8. Umetako beharrak: lapikoa ipini, egurra ekarri, galdara garbitu...

- **Erref:** DIM-008/010
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetan baserrian egiten zituzten beharrak. Bi ahizpak eskolatik etxeratutakoan, batak lapikoa ipini eta besteak basotik egurra ekarri. Txandaka. Galdara egunero garbitzen zuten errekan. Orduko xaboiak: Chimbo eta Lagarto.

9. Ura iturritik ekarri behar; ilea garbitzeko ozpina

- **Erref:** DIM-008/012
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Bizi diren etxean eurak ezkondu ostean ipini zuten ura, 1972 inguruan. Aurretik baldeetan ekarri behar iturritik. Dutxarik ez zegoen eta ahal zen moduan baldeetan garbitu behar. Udan errekan. Asunek etxe ondoan zuen erreka. Ilea garbitzeko xanpurik ez zegoen eta ozpina erabiltzen zuten. Gerraostean zorri asko izan zuten. Botika bat erabiltzen zuten haiek hiltzeko, baina arrautzetatik berriz sortzen ziren.

10. Eskolan ume asko batera; askotan joan ere ez

- **Erref:** DIM-008/022
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:34:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Adin desberdinetako umeak elkarrekin ibiltzen ziren; 60 ume inguru irakasle bakarrarekin. Aurreratuenak ipintzen zituzten beste batzuei irakasten. Azterketarik ez zen egoten. Etxeko lanak egiteko astirik ez zuten izaten. Askotan eskolara joan ere ez, itaurrean egin behar zelako edo beste lanen bat zutelako.

11. Pilotak egiten zituzten kortxoa eta hariarekin

- **Erref:** DIM-008/026
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Pilotak nola egiten zituzten: kortxoa ebaki eta hariarekin estu-estu egin. Bola egindakoan, orratz lodiarekin josi. Pilotan non jolasten zuten.

12. Dimako San Pedro jaietan zezenak; Mendekosteak

- **Erref:** DIM-008/033
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:44:39. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Aguazilak ipintzen zien musika igandeetan. Txistularia ere bazegoen. Igorreko Andra Mari jaietara gutxi joaten zen Asun, Bikarregiko jaiak ere izaten ziren eta. Diman San Pedro jaiak. Erromeria goizaldeko ordubata arte. Zezenak; torero famatuak etortzen ziren. Behin borroka libreka ere egon zen. Mendekosteetan ere jai handiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com